



## AISIALDI-KIROL MAHAIA / MESA DE OCIO DEPORTIVO

2020ko irailaren 15a

### GAI-ZERRENDA:

1. Agurrak eta mahaikideen aurkezpena
2. Eredu berria aurkezteko bideoa: [ForoConsultivo-Getxo-CASTELLANO.mov](#)
3. Ereduaren azalpena: PPT [Presentación mesas Hosteleria Comercio.pptx](#) /  
Osagarria: [Suplemento Foro.pdf](#)
  - a. Helburuak eta funtzioak
  - b. Komunikazioa
  - c. Kronograma
4. Sektorearen egoera eta hobekuntza eta/edo proiektu proposamenak.

### BERTARATUTAKOAK: (% 20)

DEITUTAKOAK		BERTARATU AK	AUSENTZIAK	
			Justifikatua k	Justifikatu gabeak
Sektoreko ordezkaria eta Polaris Nautika Eskolako gerentea	Hector García	X		
Sea Experiences		X		
2 Millas	David Benavente	X		
Náutica Galea	Javier Gutiérrez	X		
Marmitako Sailing	Eduardo Arostegui		X	
Sailing & Wine	Natxo Taibo			X
Náutica Ballestrinque	Alejandro Bracho			X
Arriluze nautikoa	Roberto Santos			X
As de Guía	Javier Peña			X
Sotavento eskola nautikoa	Alfonso Hernández			X
José Luis de Ugarte bela eskola	Eduardo Santamarina			X
Pakea bela eskola	Gonzalo Terceño			X
El Bote Tours	Juan Olabarria		X	
Náutica	Aketza Martínez			X
Ocinorte	Jose Antonio Garro	X		
Getxo Watersport	Iñigo Martínez		X	



# Getxo

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

Planeta Jets	Olga Zabala		X	
Getxoport	José Miguel Larrinaga			X
La Mar de Bien	José Muro			X
Acero Surf Eskola:	Eneko Acero			X
La Salbaje Surf Eskola	César Maceda		X	
Alaia Surf	Salva			X
Northwind Getxo	Iria Villar			X
La Kantera Skate Eskola				X
Arrecife	Jose Manuel Rodriguez			X
Dive Tarpoon	Julen Ibinaga	X		
Loizaga Prest	Imanol Loizaga	X		
Caminar en Silencio	Josu Belmonte	X		
Geotxiki	Aintzane Goffard		X	
Ekobideak	Imanol López (ekarpenak egin ditu e-mail bidez)		X	
Euskadi Trek				X
Ojo Guareña Aventura				X
La Galea klub hipikoa	Inmaculada Fernández			X
Fangaloka Style				X
Iparapente				X
Parapente Bizkaia				X
UK Parapente				X
Bicis Txofi				X
Ciclos Olabarria	Mikel Achaerandio			X
Deskonecta	Begoña Oca			X
Free Spirit Bilbao				X
Ingurumen Gela				X
Yoganorte				X
Espazio Zen Contemporáneo				X
Getxoko Udala – Sustapen Ekonomikoko Arloa	Mirene Zabalgogezkoa	X		
	Sonia Urdiain	X		

## EDUKIAK:

1. Bertaratuak agurtu eta aurkeztu dira.
2. Enpresen eta udalaren arteko elkarriketarako eredu berria aurkezteko bideoaren proiektzioa.



### 3. Udal teknikariek helburuak, funtzioak, komunikazioa eta kronograma aurkeztu dituzte.

#### 3.1.- Helburuak eta funtzioak:

Sektore mahaietan azalduko dira sektoreak berak proposatutako proiektu guztiak, sektorearen interesekoak direnak edo estrategikotzat jotzen direnak.

Proiektuak martxan jartzea eta behar bezala gauzatzea zainduko dute kideek eta sektoreko beste batzuek, proiektuak pilotatzeko batzordeetan.

#### 3.2.- Komunikazioa:

Helbide elektronikoak ahalbidetuko dira sektore bakoitzeko proposamenen berri mahaiko eta lantalde teknikoko kide guztiek izan dezaten.

Eta zabalpenerako ekintzak egin dira, helburutzat izan dutenak mahai berria eta bertako ordezkariak ezagutzera ematea; hori guztia sendotuz joango da. Era berean, eskatzen da mahaiaren ordezkariak komunikazioa egin dezala bere ordezkariekin, eta ikusten da akatsak daudela Getxolanetik ordezkariari bidalitako enpresen zerrendan; berrikusi egingo da.

#### 3.3.- Kronograma:

Kronograma azaldu da eta beharrezko azalpenak eman dira mahaiaren proposamenak urteko aurrekontuen onespenerarekin denboran lerrokatzearen garrantzia ulertzeko.

Proiektuak landuta, lehenetsita eta kontraste politikoko mahaiaren kontrastatuta egon behar dira hurrengo ekitaldiko aurrekontuetara aurkeztu ahal izateko.

Adierazi da, halaber, aurrekontu bat egongo dela ekitaldi berean proiektuak egin ahal izateko; ekintza txikiak baina esanguratsutzat jotzen direnak eta aukerako edo premiazko proiektuak.

### 4. Sektorearen egoera eta hobekuntza eta/edo proiektu proposamenak.

#### 4.1.-Bertaratutakoek egungo egoera azaltzea:

(1) COVID: Enpresen gaineko eragina desberdina izan da. Hasierako geldialdia (konfinamendua) eta enpresak eta zerbitzuak egoera berrira egokitzeko beharra (protokoloak, salbuespenak) kontuan hartuta, hainbat errealitate bizi izan dira:

- (a) Emaitzak hobetu dituzten enpresak (adibidez: bela; batez ere, tokiko kontsumitzaileekin egindako charter-zerbitzuak)
- (b) Ia batere lanik egin ez duten enpresak (adib.: naturako gidak...)



(c) Sasoia gainditzea lortu duten enpresak, baina ohiko jarduera baino askoz ordu gehiago sartuta (adib.: urpekaritza)

- ✓ Azken uneko erreserben kudeaketa etengabea izan da (pandemiaren bilakaeraren eta zabaltzen ziren albisteen arabera, positiboan zein negatiboan).
- ✓ Tokiko kontsumoa bultzatzeko egin den sustapen-kanpaina positiboki baloratzen dute, eta bat datoz mantendu eta are indartu egin beharko litzatekeela esatean. Oraindik lokal askok ez dakite inguruan dagoen kirol-aisialdiko eskaintza, eta uste dute funtsezkoa dela eskaintza horren zabalkundearen eragitea.
- ✓ Enpresa batzuek jarduera falta aprobetxatu dute barne-kudeaketa hobetzeko, kontaktu berriak egiteko (adib.: Basoalde elkarteak, basoko bainuen eremuan jarduten duten enpresak)

(2) KIROL-PORTUA: Bertaratutakoek kezka handia agertu dute, kirol-portuaren etorkizunari buruzko ziurgabetasuna eta informazio falta dela eta. Bat datoz esatean zaila dela epe ertain eta luzera proiektuak lantzea eta planteatzea, 2025/01/03tik aurrera zer gertatuko den ez dakitenean. Informazio ofizialik ez dutela adierazi dute, entzundako zurrumurruetatik harago... Horren ondorioz portua *deskapitalizatzen ari dela* diote.

#### 4.2.- Hobetzeko proposamenak eta/edo proiektuak:

- (1) Etorkizuneko kirol-portuaren proiektuaren aurkezpena; ezaugarriak, erabilerak, ezarpen-kronograma, parte hartzeko baldintzak... kirol-portuan lan egiten duten enpresa guztiei irekia.
- (2) Kirol portua (egungo agertokia):
  - (a) Kirol-portuan nabigazio-kanala erabiltzeko segurtasun-protokolo argia ezartzea, eta haren ezagutza eta kontrola bermatzea. Hainbat istripu gertatu dira piraguak eta abar behar legez ez erabiltzeagatik.
  - (b) Ereku komunak garbitzea eta zaintzea: ingurunea erabat zaindu gabe dagoela azpimarratzen dute: iturria ez da ibili urteetan, zikinkeria handia dago bai lurrean, bai ur-laminan (Take Away eta antzeko zerbitzuak dituzten ostalaritza-establezimenduetako hondakinak/Botila-festak), arratoiak...
  - (c) Jarduera nautikoak sustatzea kirol-gunean, eta erabilera ez-nautikoen instalazioa mugatzea.
  - (d) "hub"-z galdetu dute, irekitzeko aurreikusitako dataren inguruan, eta instalazioak erabiltzeko interesa agertu dute. Egungo



- egoerari buruzko informazioa eman zaie, eta erabilera-deialdia egin bezain laster informatuta edukitzeko konpromisoa hartu da.
- (e) Zerrendan dauden ontziei gaua portuan igarotzen laguntzea, gaualdiak egiten diren portu berean jarduten duten ontziak barne.
- (3) Herritarrei zuzendutako kontzientziazio-kanpaina, jarduera mota bakoitza egiteko higiene- eta osasun-baldintzak hedatzen laguntzeko (alde handiak modalitateen artean; erasoak eta babesgabetasuna).
- (4) Sustapen-kanpaina indartzea, tokiko kirol-aisialdiko jardueren kontsumoa bultzatzeko, eta 2021 urtera zabaltzea.
- (5) Kultura-jardueraren eta kirol-jardueraren programazioari dagokionez, udal-irizpide berberak baloratzea; kirol-jarduera bertan behera uzteak mesfidantza sortzen du jendearengan.
- (6) Sustapen ekonomikoa: abiarazten ditugun programa eta ekimen guztiak biltzen dituen informazio-gida txikia. Nolabaiteko nahastea sumatzen da (GetxoAktibatu, GetxoMeeting, GetxoBonua...). Bat datoz arlo horretan ondo zainduta sentitzen direla esatean; batez ere, beste herri batzuetan egoitza duten beste enpresa batzuekin bat egiten dutenean – "Besteen inbidia gara..."
- (7) Sektoreari zuzendutako informazio-bideak aldatu direla jakinaraztea (ez turismotik, lehiakortasunari eta kudeaketaren hobekuntzari dagokienez, sustapen ekonomikotik baizik). Turismoak gurutzaontzien berri besterik ez duela ematen eta horrek negozioetan eraginik ez duela uste dute. Estrategia azaltzea.
- (8) Flysch-aren inguruan diharduten enprekin lantalde bat osatzea, sinergiak sortzeko eta askotariko jardueren kronograma osagarria sustatzeko.

#### 5.- KIROL-AISIALDIAREN MAHAIAREN ERABAKIAK (20.09.15):

<b>AKORDIOAK/EKINTZAK</b>	<b>ARDURADUNA</b>	<b>DATA</b>
1. Aktaren zirriborroa bidaltzea	Udal teknikariak	2020-10-05
2. Gobernu-taldeari eta El Abra-Getxo kirol-portuaren sozietateari eskatzea etorkizuneko kirol-portuaren proiektuaren aurkezpena; ezaugarriak, erabilerak, ezarpen-kronograma, parte hartzeko baldintzak... gaur egun kirol-portuan diharduten enpresa guztiei irekia.	Sonia	2020-10-09a baino lehen
3. El Abra-Getxo Kirol Portuaren sozietateari helaraztea Kirol Portuaren inguruko eskaera guztiak, balorazioa egiteko eta informazioa mahaira itzultzeko: a. Kirol-portuan nabigazio-kanala	Sonia	2020-10-09a baino lehen



<p>erabiltzeko segurtasun-protokolo argia ezartzea, eta haren ezagutza eta kontrola bermatzea.</p> <p>b. Eremu komunak garbitzea eta zaintzea:</p> <p>c. Jarduera nautikoak sustatzea kirol-gunean, eta erabilera ez-nautikoen instalazioa mugatzea.</p> <p>d. 6. zerrendan dauden ontziei gaua portuan igarotzen laguntzea, gaualdiak egiten diren portu berean jarduten duten ontziak barne.</p>		
<p>4. Kirol-portuan egoitza duten enpresek HUBa lanerako espazio gisa erabiltzeko, bilerak, aurkezpenak antolatzeke eta enpresei, besteak beste, deialdiari eta baldintzei buruzko informazioa emateko</p>	<p>Ainhoa/Jose</p>	<p>2020-09-15etik aurrera</p>
<p>5. Herritarrei zuzendutako kontzientziazio-kanpaina, jarduera mota bakoitza egiteko higie- eta osasun-baldintzak hedatzen laguntzeko (alde handiak modalitateen artean).</p>	<p>Udal teknikariak</p>	<p>2020-10-30a baino lehen</p>
<p>6. Sustapen-kanpaina indartzea, tokiko kirol-aisialdiko jardueren kontsumoa bultzatzeko, eta 2021 urtera zabaltzea.</p>	<p>Udal teknikariak</p>	<p>2020-10-30a baino lehen</p>
<p>7. Kultura-jardueraren eta kirol-jardueraren programazioari dagokionez, udal-irizpide berberak baloratu behar direla helaraztea gobernu-taldeari; kirol-jarduera bertan behera uzteak mesfidantza sortzen du jendearengan.</p>	<p>Udal teknikariak</p>	<p>2020-10-09a baino lehen</p>
<p>8. Informazio-gida txikia egitea, Sustapen Ekonomikoko arloak abiarazitako programa eta ekimen guztiak jasoz. Nolabaiteko nahastea hautematen da (GetxoAktibatu, GetxoMeeting, GetxoBonua...).</p>	<p>Getxolan</p>	<p>Urtea amaitu aurretik</p>
<p>9. Sektoreari zuzendutako informazio-bideak aldatu direla jakinaraztea (ez turismotik, lehiakortasunari eta kudeaketaren hobekuntzari dagokienez, sustapen</p>	<p>Sonia</p>	<p>2020-10-15a baino lehen</p>



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

ekonomikotik baizik). Turismoak gurutzantzen berri besterik ez duela ematen eta horrek negozioetan eraginik ez duela uste dute. Estrategia azaltzea.		
10. Flysch-aren inguruan diharduten enprekin lantalde bat osatzea, sinergiak sortzeko eta askotariko jardueren kronograma osagarria sustatzeko.	Sonia	Urtea amaitu aurretik